

Euskerazaintza´ren izateko arrazoia

Euskerazaintza Erri-Euskeraren Akademia zergatik eta zertarako sortu zen azalduz idazlantxo labur bat. «Fax» ez len-bait-len bidaltzeko, eskatu didate Donosti´tik biar, Iraillak 5, an Batzar batean irakurria izen dedin. Gudatean ildako euskal-idazleetaz Euskerazaintzako akademilari batzuek idatzitako liburu baten aurkezpena omen dute ba. Auxe da, irazean idatzita, bidali die-tena:

«Euskerak bazituan bi Erakunde. Gutxi-gora-bera, bata bezain zarra bes- tea: Euskaltzaindia eta Kardaberaz Bazkuna. Betiko Euskera Zarraren serbi- tzura biak.

«Orduan, bi erakunde aietako batek, Euskaltzaindiak, betiko euskera zarra utzita, Euskera Batua izeneko izkuntza berri ori artu zuan beretzat.


«Arantzazu´ko Batzar baten egin zuan ori. Une artan. Euskaltzaindian, Eus- kera Zarraren aldekoak geiago ziran Euskera berriaren aldekoak baiño. Ez zuten itzegiterik izan. Batzar zaratatsu lotsagarria izan bait zan ura. Betiko Euskera zarraren aldekoak, «zarrak etxera», oiukatuz isillerazi zituzten. Ez zan auteskunderik izan. An zeuden, bezperaz Ermu´n Euskaltzaindiarekin edo Euskaltzaindiaren aurka, Euskera Batu Berria aurrera ateratzea zin egin zuten gazte iraultzalariak. Auen oiuketa izan zan Euskera Berria onartuerazi zuena.

«Bere eginkizun berrian eragozpenik gabe lan egiteko, Lendakari berri bar aukeratu zuan Euskaltzaindiak, lengoa, On Manuel Lekuona, baztertuz, «leio- tik beera jaurtiz», Lekuonak berak esan oi zuan bezala.

«Amar urte geroago, Euskaltzaindiak, Batzar Nagusi bat egin zuan, legeak zuzentasunerako eskatzen dituan baldintza guztiak urratuz.

An, baliorik gabeko oiñarritan tinkoturik, Euskera ofiziala egin zuan Euske- ra Batua: ondorioz, Euskadi osoan, Euskera Berri bat. Euskaltzaindia Berriak, Lendakari Berri bat.

«Batzar artan aurkeztu zuan Karberaz Bazkunak –Euskaltzaindia, Betiko Euskararen Akademi izatez utzita Euskara Batuaren Akademi biurtu zalako– Akademi berri bat sortu bearra ez ote zalako kezka: Akademi ori Arantzazu- aurreko Euskaltzaindi onuragarri aren jarraile izan zedin.



«Berealaxe, Tolosa´n Batzar oro- kor baten altzoan, Akademi ori sor- tzea erabaki zuan Kardaberaz Baz- kunak. Orrela jaioko zan Euskera- zaintza.

«Zertarako? Erriaren Betiko Eus- kera salbatzeko, eta al zuan guz- tian, Euskera ori lantzeko, bizkortze- ko eta edertzeko».

Salaketa gogorak egiten dizkiot Euskaltzaindiari eta Salaketa oiek denak, banan-banan egiztatuz, era egozkian argitzeko. Liburu bat idatzi dogu euskeraz eta erderaz.

LATIEGI´TAR BIXENTE´K
("Dirario de Navarra´n agergua)